

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**26/2019 TXOSTENA**

Gaia: Inbentarioan agertzen diren Bermeoko udalerriko auzi bideak gaurkotu eta ikertzeko espedientea

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3. artikulua eta Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 53. artikulua.

1. Aurrekariak

Lehenengoa: 2014ko irailaren 4an, Udal Osoko Bilkurak, Inbentarioan agertzen diren Bermeoko udalerriko auzo bideen zerrenda gaurkotu eta ikertzeko espedientea zabaltzea erabaki zuen.

Bigarrena: Entzunaldiaren iragarkia 2014ko azaroaren 4ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta, ondorioz, alegazioak aurkezteko epea abenduaren 22an amaitu zen.

Hirugarrena: Iragarkia auzoetako alkateei ere bidali zitzaien dagokion iragarkia egin dezaten eta ezagutzen ziren interesdunei pertsonalki jakinarazi zitzaien. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Gobernuaren ordezkariak ordeari jakinarazi zitzaien.

Laugarrena: 2015eko azaroaren 30eko Probidentzia bidez, frogaldia zabaltzea eta zenbait lekukotza eta agiri batzea erabaki zen.

Bosgarrena: Ikerketaren konplexutasuna eta egondako alegazioen kopurua kontutan izanda, 2017ko apirilaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarrean, auzo bideen inbentarioaren ikerketa teknikoa egiteko kontratua Sendo SL enpresari esleitzea erabaki zen.

Seigarrena: 2018ko apirilaren 5ean, Sendo, SL enpresak ikerketaren txostena eman zuen eta, frogaldia amaitutzat emanda, entzunaldia eman zaien interesdunei.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002233000F0L2D9R2Q3P8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2019 14:46:27

DOCUMENTO: 20190140080

Data: 30/04/2019

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Zazpigarrena: Entzunaldian egondako alegazioen gainean, txostena eman zuen Sendo, SL enpresak 2019ko martxoaren 21ean.

Zortzigarrena: 2019ko apirilaren 5ean, Idazkaritza Saileko AOTk erabaki proposamena egin zuen.

Bederatzigarrena: 2019ko apirilaren 23an erakunde eta kontu batzorde bereziak aldeko irizpena eman du.

2. Argudio juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOAL) 4.1 d), 5 eta 68. artikulua.
- Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren (TEOA) 44.artikuluak eta hurrengoak.
- Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren (TEAJE) 220 eta 221. artikulua.


2.2. Jardunbidea eta eskumena

Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren (aurrerantzean TEOA) 45. artikulua, baita Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 d). artikulua ere, Toki Korporazioei ematen diete ustez haienak diren ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena, ondasun eta eskubide horien gaineko titulartasuna ageri ez denean.

Espedientea hasteko erari begira, TEOAko 46. artikulua xedatzen du, akzio ikertzailea egikaritu daitekeela, hala Korporazioak berak ofizios erabaki duelako, nola norbanakoek salaketa aurkeztu dutelako. Azken kasu horretan, aipatu Errege Dekretuaren 47. artikulua, norbanakoaren salaketa onartzeko eskatzen du, horrek, gastuen zenbatekoa



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002233000F0L2D9R2Q3P8

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 30/04/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2019
14:46:27

DOCUMENTO: 20190140080
Data: 30/04/2019
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



aurreratu dezala, beharrezkotzat jotzen den zenbatekoan, eta horixe ez dela 60,10 eurotik beheragokoa izango, ezta 601,10 eurotik gorakoa ere. Toki erakundeak, lotutako gastuak zehatz-mehatz egiaztatu beharko ditu eta, hala denean, soberakina itzuli.

Edozein kasutan, eta TEOAko 48. artikuluekin bat etorritik, behin salaketa edo komunikazioa jaso denean, eta espedientearen irekiera erabaki baino lehen, aurretiazko azterketa burutuko da akzio ikertzailea egikaritzeko bidezketasunari buruz.


Ikerketa espedientea hasteko erabakia, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, ikergai den ondasuna edo eskubidea identifikatzea ahalbidetzen duten ezaugarriak azalduz. Aldizkariaren kopia, ondasunak non egon eta leku horren Udaletxeko iragarki taulan agerraraziko da, hamabost eguneko epean. Espedientearen hasierari buruzko erabakia, Estatuko eta Autonomiko Administrazioei helaraziko zaie, horiek, hala denean, haiei dagozkien eskubideak egikaritu ditzaten eta egoki deritzotena adierazi dezaten. Hori guztia, TEOAko 49. artikuluen arabera. Orobat, pertsonalki jakinaraziko zaie, TEOAko 50. artikulua adierazi bezala, ikerketa espedienteak ukitutako pertsonen, horiek ezagunak eta identifikagarriak badira.

Udaletxeko iragarki taulan iragarkiaren agerpena bukatutzat jo behar den eguneko biharamunetik hasita hilabeteko epean, espedienteak ukitutako pertsonen, Korporazio honen aurrean idatziz azaldu dezakete, haien eskubideari egoki deritzotena, haien adierazpena oinarritzen dituzten agiri guztiak horri erantsiz (TEOAko 50. artikulua). Aipatu muga igarota, frogarako epea irekiko da, eta hurrengo agiriak onartuko dira:

1. Zuzenbidearen arabera egiletsi diren agiri publiko judizialak, notarialak edo administratiboak.
2. Adituaren aintzatespena eta irizpena.
3. Lekukoan adierazpena (TEOAko 51. artikulua).



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 STEMMA PRODER IN PRIMIS BERMEO	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E30002233000F0L2D9R2Q3P8	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2019 14:46:27	DOCUMENTO: 20190140080 Data: 30/04/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

TEOako 52. artikulua zehazten du, bidezko diren frogak gauzatutakoan eta Korporazioko zerbitzuek horiek balioetsi ondoren, espedientea aditzera emango zaiela, hamar eguneko epean, ikerketa ukitzen dituen eta bertan agertu diren pertsonen, epe horren barruan, haien eskubideari egoki deritzotena adierazi dezaten.

TEOako 53. artikulua arabera, espedientearen ebazpena Korporazioko organo eskudunari dagokio, Idazkariak txostena eman ondoren. Aldeko ebazpena bada, finka edo eskubidea balioztatuko da, inbentarioan sartuko da eta Korporazioaren eskubideak eraginkor egitera bideratutako neurriak hartuko dira.

Organo eskuduna Osoko Bilkura da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.j). artikulua ikusita, ikerketak eragindako administrazio-egintza baita. Aipatu Legearen 47. artikulua adierazi bezala, erabakia gehiengo soilaz hartuko da.

Ondorioa


Idazkariaren txostena Informazio Batzordearen diktamena izan orduko egin behar da; bestela, espedienteak legeak ezarritako prozedura eta eskumenak errespetatzen ditu. Beraz, **aldeko txostena** egiten da.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Oh. Orri oinean sinatzailea eta data



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E30002233000F0L2D9R2Q3P8</p>	Sinadurea eta data	DOCUMENTO: 20190140080
	JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 30/04/2019 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 30/04/2019 14:46:27	Fecha: 30/04/2019 Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

